

## **BERMEOKO UDALERAKO ERRATZ-MAKINA XURGATZAILE BIREN HORNIDUREA KONTRATETAKO DEITUTAKO LEHIAKETEA ARAUTZEN DABEN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA.**

### **KONTRATUAREN HELBURUA**

Kontratu honen helburua Bermeoko Udalerako erratz-makina xurgatzaile biren hornidurea da, egin be behean adierazoten diran baldintzen arabera.

### **EZAUGARRIAK**

#### **Ezaugarri teknikoak eta ekipamentua:**

- Diesel motorra, Euro V, 4-5 zilindrokoa, 120 CV-ko gitxieneko potentziakoa.
- Xurgapen zuloa aurreko gurbil bien artean euki behar dau, eta bi eskuila alboetan, gitxienez 800 mm-ko diametrokoak.
- Hirugarren eskuila aurreko aldean, gitxienez 800 mm-ko diametrokoa, erretraktila eta orientagarria
- Altzairu herdoilgaitzeko tobera, gitxienez 2 m<sup>3</sup>-ko edukierakoa, iraulketa eta estalkia edegitea hidraulikoak, eta larrialdietarako eskuko ponpa hidraulikoagaz.
- Ur garbirako biltegia polietilenoazkoa, kabinaren azpian, gitxienez 300 l-ko edukierakoa, eta ura birzikletako sistema, gitxienez, edukieraren erdikoa izan behar da.
- Eskuilak eta xurgapen haizebidea ziprztintzeko ur-ponpa, elektrikoki kontrolatutakoa
- Aluminiozko kabinea, hotsgabetua, barruan argiagaz, managailu ergonomikoakaz, olio hidraulikoaren, motorreko olioaren eta hozteko sistemearen mailen eta tenperaturen kontrol akustikoagaz.
- Errazteko sistema programagarria
- Mahuka-erdirako aurreinstalazinoa.
- Unidatea garbitzeko ur-pistola
- Faro birakari homologatua
- Atzera-martxarako soinua
- Kolorea: zuria, RAL 9016
- Koipeztaketa sistema zentralizatu automatikoa
- Haize girotuko ekipoa
- Ordezko gurbila
- Irrati-CD ekipoa
- Bermeoko Udalaren irudi korporatiboa errotulatuta
- Matrikulea
- Prestakuntza eta abiarazotea



**Araudiak:**

98/37/CE zuzentarauaren araberako CE ziurtagiria  
2000/14/CE soinu jaulkipenen CE ziurtagiria  
IAT barne

**BERMEA**

12 hilebeteko bermea, bai piezetan, bai eskulanean.

Berme epearen barruan konponketak, gehienez ere, 24 orduren barruan artatuko dira. Epe hori gainditu ezker, enpreseak makina horren ordez beste bat itxi beharko dau, konponketeak irauten dauen denpora guztirako.

**EMOTeko EPEA**

Ibilgailua, matrikulauta eta errotulauta, Bermeoko Udalera ekarri beharko da, gehienez be, hilebeteko epean.

**LIZITAZINO MOETEA.**

Lizitazino muetea 240.000,00 eurokoa izango da, BEZa kanpo. BEZari jagokon zenbatekoa 38.400,00 eurokoa da.

**BALORAZINO ERISPIDEAK**

*Prezioa: 80 punturaino.*

Eskaintzarik merkeenak 80 puntu jasoko dauz. Egindako eskaintza ekonomikoak kontuan hartuta, eskaintza baktxaren puntuazinoa lortzeko formula hau erabiliko da: eskaintza ekonomiko merkeenaren eta baloretan ari dan eskaintzearen arteko zatidurearen egingo da eta, gero, emoitza horri erispideari ezarri lekikiozan puntu guztiak biderkatuko jakoz. Hau da:

***Ob/OI x 80***

Bertan **Ob** eskaintzarik merkeena izango da eta **OI** baloretan gabilzan lizitatzaillearen eskaintzea, 80, barriz, erispide honetan emon leitekeen puntuazinatorik handiena da.

*Berme handitzea: 20 punturaino.*

Eskaintitako bermerik handienak 20 puntu jasoko dauz. Berme eperik laburrena 12 hilebetekoa izan beharko da, eta ganerako eskaintzak proportzinoan balorauko dira.

Bermeon, 2009ko abuztuan

